

# HERRITARREN PARTEHARTZE PROZESUA

# ONDARTXO NOLA ERAIKI NAHI DUGU?

PROCESO DE PARTICIPACION CIUDADANA

¿CÓMO QUEREMOS CONSTRUIR ONDARTXO?



# HERRITARREN PARTEHARTZE PROZESUA
PROCESO DE PARTICIPACION CIUDADANA

## ONDARTXO NOLA ERAIKI NAHI DUGU?
¿CÓMO QUEREMOS CONSTRUIR ONDARTXO?

| SARRERA | INTRODUCCION |
|---|---|
| Diputazioa eta Udalaren artean sinaturiko hitzarmenean, Udalak Ondartxoko ekipamendua eraikitzeko proiektua idazteko ekintza sartu zuen. | En el marco del convenio suscrito entre el Ayuntamiento y la Diputación, el Ayuntamiento incluyó la acción para la redacción del proyecto constructivo del equipamiento de Ondartxo. |
| Proiektua idatziko duen ekipoa kontratatu aurretik, Udala eta herritarren artean eraikitzen jarraitzeko dugun konpromiso horretatik abiatuta, San Pedroko herritarren ikuspegitik eremu eta ekipamendu horrek zein helburu eta proposamen jaso behar dituen zehazteko prozesu bat antolatuko du Udalak. | Con carácter previo a la contratación del equipo redactor del proyecto y desde el compromiso de seguir construyendo conjuntamente entre la ciudadanía y el Ayuntamiento, el Ayuntamiento ha organizado este proceso para definir, desde la visión de la ciudadanía de San Pedro, los objetivos y propuestas que deben recoger esta zona y este equipamiento. |
| Joan den abenduan erabat irekia izan den prozesua jarri zen martxan; guztion artean, herritarren artean eraikitzeko prozesu honek Udalaz kanpoko bideratzaileen laguntza izan du. | El pasado diciembre se puso en marcha este proceso abierto a todos y todas, de construcción colectiva entre la ciudadanía, que ha contado con al apoyo de un equipo de facilitación externo al Ayuntamiento. |
| Hasiera hasieratik utzi du garbi Udalak prozesuak ez zuela aurre baldintzarik eta adostasuna lortzen zuen proposamena Udalera eramango zuela eztabaidarako eta Ondartxorako egingo den aurreproiekturako aintzat har zedin. Honela, lortutako emaitzak proiektua idatziko duen lantaldeari jakinaraziko zaizkio eta horretan oinarriturik, lehen zirriborroa, hots, aurreproiektua idatziko dute. | Desde el inicio, el Ayuntamiento informó que el proceso no tendría ningún resultado predeterminado y que elevaría la propuesta consensuada al Ayuntamiento para su debate y decisión en la elaboración del anteproyecto para la zona de Ondartxo. De esta forma se darán a conocer las conclusiones al equipo redactor del proyecto y, basándose en ellas, se encargarán de redactar un primer borrador, esto es, el anteproyecto. |
| Aurreproiektua daukanean, Udalak tresnak bideratzen jarraituko du eta beste Topagunea antolatuko du, parte hartu duten pertsonei eta orokorrean herritarrei irekia; bertan egindakoa aztertuko da eta lortutako adostasunekin lotura duen ikusiko da. | Una vez que se tenga el anteproyecto, el Ayuntamiento seguirá facilitando las herramientas y volverá a convocar otra Topagune, a todas las personas que han participado en el actual proceso y a la ciudadanía en general, para analizar el mismo, viendo si se ajusta a las conclusiones consensuadas. |
| Berrespen hori eman eta gero egingo du behin betiko proiektua talde teknikoak. | Será después de esa validación, cuando el equipo técnico realice el proyecto definitivo. |
| Testuinguru horretan, San Pedroko ikastolan ia 50 herritar bildu dira eta hiru lan saio burutu dituzte, bertan Ondartxoko etorkizuneko erabileraz eztabaidatu eta erabakitzeko. Prozesuaren balorazioa, bai bere garapenean, baita parte-hartzean ere oso baikorra da, azpimarratuz parte-hartze pertsonala eta hitz egiteko eta entzuteko gaitasuna alde batetik eta bestetik jende anitzaren parte-hartzea eta ondoren egindako hiru lan saioetan egondako inkorporazioak. | En ese marco, en la ikastola de San Pedro, cerca de 50 ciudadan@s, se han reunido en 3 sesiones de trabajo para discutir y decidir conjuntamente el futuro uso de Ondartxo. La valoración del proceso, tanto en su desarrollo, como en la participación, ha sido altamente positiva, destacando la participación personal y la capacidad de dialogar y escuchar por un lado, y por otro la participación de gente diversa y las posteriores incorporaciones de personas a lo largo de las tres sesiones de trabajo. |
| Irizpide orokor bezala, Ondartxoko izaera naturala berreskuratzea erabakitzen da, kokagune natural hori, inguruan duen ibarrarekin batera, herritarren aisialdirako erabiliaz, eta bertan ontzi tradizionaletako Ontziola kokatuz. | Como criterio general se decide recuperar el carácter natural de Ondartxo, utilizando ese espacio para el ocio y el esparcimiento, complementándolo con los espacios que se sitúan en la vaguada, así como ubicar en el mismo el astillero de embarcaciones tradicionales Ontziola. |



| PROZESUAREN ONDORIOAK | CONCLUSIONES DEL PROCESO |
|---|---|
| Ia ondorio guztiak adostasunez lortu dira egindako ideia, ekarpen eta eztabaida sakonekin. Soilik bi momentutan (izaera eta draga) posizionamendu zuzen eta norbanakoa erabili da taldearen posizioa finkatzeko. Bi kasu horietan emaitzak oso zehatzak izan dira eta hainbat zalantza argitzeko balio izan dute.<br><br>Ondoren azaltzen ditugu lortutako ondorioak: | La casi totalidad de las conclusiones han sido definidas por consenso a partir de ideas, aportes e intensos debates. Sólo en dos oportunidades (el carácter y la draga) se ha recurrido a un posicionamiento directo e individual de las personas participantes para definir la posición del grupo. En ambos casos los resultados han sido muy precisos y han permitido despejar incógnitas.<br><br>A continuación reflejamos las conclusiones: |
| **ONDARTXOKO IZAERA** | **EL CARÁCTER DE ONDARTXO** |
| Lortutako ondorio nagusia Ondartxok bere izaera naturala mantendu behar duela izan da, modu egokian integratutako elementu edota eraikin batzuekin, eremuaren erabilera handiagoa izateko aukera emango dutenak, izaera naturala galdu gabe. Hau da, proposatuko diren elementuek eta beraien edukiek artikulatuko dute eremu honen izaera natural eta atsegina. | La primera gran conclusión a la que se llegó es que Ondartxo tiene que mantener un carácter natural, con algunos elementos y/o construcciones integrados de manera armoniosa, que permitan un mayor uso del espacio, sin perder su carácter natural; es decir, los elementos de uso y su contenido que se propongan deberán articular el carácter natural y armonioso de este espacio. |
| **INGURUA ETA BIDEA** | **EL ENTORNO Y EL ACCESO** |
| **Ibarraren inguruan:**<br>✓ Ibarra bera modu naturalean lotzen duten antzinako bideak berreskuratzea, egungo bideak eta bide zaharrak berreskuratuz, Mendiolara doana adibide. Horretarako ez dira igogailu edo funikularren antzeko azpiegiturak eraikiko.<br>✓ Berreskuratu jolaserako, kulturarako eta aisialdirako eremua sortuz.<br>✓ Ibarraren goialdea kantina baten antzeko elementu batentzat oso leku interesgarria dela ulertzen da, inguru honetatik paseatzen edota mendi-ibiliak egiten dituzten pertsonentzako aterpea izan daitekeena, eta baita kanpoan egitekoak diren ekintza kulturalak egiteko ere, mahaiak, iturri, zuhaitz, kerizpe... Garrantzizkotzat jotzen da belardia egotea. | **Acerca de la vaguada:**<br>✓ Recuperar los caminos que enlazan de forma natural la propia vaguada, recuperando antiguos y actuales caminos, como el que va hacia Mendiola. Se apuesta por la no construcción de infraestructuras en la zona como ascensores o funiculares.<br>✓ Recuperar creando una zona lúdica, cultural y de ocio.<br>✓ La parte superior de la vaguada se percibe como zona interesante para instalar un elemento similar a una cantina, e incluso pueda ser utilizable como un pequeño refugio para las personas que pasean y/o practican el senderismo y que transitan por esta zona, y para realizar actos culturales al aire libre, con mesas, fuente, árboles y sombra… Se ve importante que haya césped y árboles. |
| **Zirkulazioa eta paseoaren inguruan:**<br>✓ Paseo guztia, Puntetaraino, berreskuratzea oinezkoentzako eta txirringentzako (edo patinentzako) eta hauek elkarrekin bizi daitezen banandutako erabilerak ezarri gabe.<br>✓ Kotxeen zirkulazioa debekatzea eta morrontzen erabilerak (batzuk legez ezarriak) detaile handiagorekin definitu.<br>✓ Karroetatik Ontziolara doaz porlanezko pareta kentzea eta bere ordez baranda bat jartzea.<br>✓ Tunela ez berreskuratzeko adostasuna, ez dira aurreikusten hau berreskuratzeko ekintzarik.<br>✓ Ondartxoko gunean aparkalekurik ez jartzeko adostasuna dago.<br>✓ Jendea Ondartxoraino eramateko ontziraleku txiki bat jartzeko aukera aztertzea. | **Acerca de la circulación y el paseo:**<br>✓ Recuperar todo el paseo, hasta Puntas, para uso de peatones y bicis (o patines) y que éstos convivan sin crear usos separados.<br>✓ Prohibir la circulación de los coches y definir el uso de las servidumbres (tomando referencia en la ley) con más detalles.<br>✓ Quitar el muro de piedra que va de Carros a Ontziola y poner una barandilla en su lugar.<br>✓ Consenso en no recuperar el túnel, no se plantean acciones de recuperación para el mismo.<br>✓ Consenso en no contemplar aparcamientos en la zona de Ondartxo.<br>✓ Analizar la viabilidad de crear un pequeño embarcadero para trasladar a la gente a Ondartxo. |



| ONDARTXOKO ERABILERA ZEHATZA | EL USO DIRECTO DE LA ENSENADA |
|---|---|
| **Badiaren lehentasunezko erabilera:** | **Uso prioritario de la ensenada:** |
| ✓ Izaera naturala izango duen eta itsasoko ura duen hondartza-igerilekua egitea, bainatzen ari direnak ontzietatik babestuko dituzten elementuekin. | ✓ Hacer un combinado de playa-piscina de carácter natural, con elementos de protección para l@s bañistas del tráfico de embarcaciones. |
| ✓ Karro guztiak, edo gehienak behintzat, kentzea. Hala ere, Ontziolaren beharrak kontutan harturik, eta hondartzarekin eta gainontzeko erabilpenekin bateragarri eginez, karroren bat mantenduko da. | ✓ Quitar todos o, por lo menos, la gran mayoría de los carros. No obstante, teniendo en cuenta las necesidades de Ontziola y de manera compatible con la realización de la playa y otros usos, se mantendrá eventualmente algún carro. |
| **Beste erabilera batzuk:** | **Otros usos:** |
| ✓ Gune honetan egiten diren jarduerak, adibidez arrantza, moduren batean laguntzea. | ✓ Ayudar, de alguna manera, las actividades que se suelen practicar en la zona, por ejemplo, la pesca. |
| ✓ Hondartza-igerilekua eta merenderoa egonik, ez da haurrentzako jolas-eremurik egongo. | ✓ No habrá una zona de juegos infantiles al haber playa-piscina y zona merendero. |
| **Ontziolaren inguruan:** | **Acerca de Ontziola:** |
| ✓ Ontziola mantentzea, azpimarratzen proiektua idazterakoan Ontziolak beste erabilerak ez baldintzatzea (edo gutxi baldintzatzea) saiatu beharko dela, berdimensionatuz. | ✓ Mantener Ontziola, subrayando que al realizar el proyecto se tendrá que intentar que Ontziola no condicione (o condicione lo menos posible) los otros usos, redimensionándolo. |
| ✓ Beharrezkoa bada, egungo eraikina aldatu, egokitu, txikitu edo behar bada bota egin beharko da, egingo den proposamenaren arabera. | ✓ Se tendría que modificar, adecuar, el edificio actual, reducirlo o incluso echarlo y reubicarlo si es necesario, en dependencia de la propuesta que se elabore. |
| ✓ Ez da lehentasunezkotzat jotzen Foru Aldundiko ontzientzako biltegia, beste nonbait egon beharko duelarik. | ✓ No se considera prioritario el almacén para las embarcaciones de la Diputación, debiendo estar en otro sitio. |
| ✓ Ontziolaren jarduera jendearentzat irekia egon behar du (horma kendu eta ontziola bistan utzi), horrela jendeak ontziola bat zer zen ikusiko luke, nola egiten den lana, ontzi baten eraikuntzaren garapena,... | ✓ La actividad de Ontziola tiene que estar abierta a la gente (quitar el muro y poner el astillero a la vista), para que se pueda percibir lo que era un astillero, cómo se trabaja, la evolución de un barco en construcción… |
| **Dragaren inguruan:** | **Acerca de la Draga:** |
| ✓ Adostasuna dago Dragaren egungo kokapena ez dela egokia eta beste toki batera eramatea proposatzen da Ondartxotik kanpo, ur gainekoa lehenetsiz, bertan mantentzeak erabat baldintzatzen baititu definitutako erabilerak. | ✓ Existe consenso en que la ubicación actual de la Draga no es correcta y se propone su traslado a otra zona/espacio fuera de Ondartxo, preferiblemente flotándola ya que su permanencia condiciona totalmente los usos definidos. |